

## NIK ERE EZ DUT HIL NAHI

Bihotza ebaki nahi didate  
Eskabadoreen hortz zorrotzek  
egingo dizkidate lehenengo zauriak.  
Sabela irekiko didate.

Inoiz ez hiltzeko sortua nintzen  
baina heriotzaren iluna datorkit.  
Ezin ezer egin!

Bizitza luze honetan  
sagarrondoaren agonia isila entzun dut  
txorien kantua ez da lehengoa  
zeruan hauts gorri-urdina dakusat  
Jaizkibelugarretan.

Aurrerantzean ez naiz deus izango  
ezerezean hilobiratuko naute  
hegazti izutuek mutu iragango dituzte  
asfaltozko lerro amaitezinak  
loreek ez dituzte gehiago udaberrituko  
keztutako baserri-inguruak.

Motorren durundiak oihartzuna  
etenik gabeko oihartzuna egingo du  
Jaizkibel penatuaren magalean  
eta auto-gidariek ez dituzte madarikatuko  
aurrerakuntzaren izenean emandako aginduak  
ez dute ez ezertan erreparatuko  
hona eta hara iritsi behararen hipnosiagatik.

Eskabadoreen hortz zorrotzek  
bizitza ebaki nahi didate  
baina borrareroaren zain nagoelarik  
egin dezadan bederen garrasi.

Nik ere ez dut hil nahi!

(MUNTTAR)